

## 7.FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua garatzeko jarduera batzuk geuk egingo ditugu, baina beste asko kanpoko enpresei eskatuko dizkiegu. Lehenik eta behin, finantzaketari dagokionez, banku bati mailegu bat eskatu beharko diogu. Gure kasuan, Santander bankuarekin aliatuko gara, enpresentzako eskaintzen duten mailegua eskatuz.

Ondoren, salduko dugun produktuaren oinarria robot bat denez, robot hori Cecotec enpresari erosiko diogu. Cecotec aukeratu dugu Espainian fabrikatzen duelako eta geografikoki gertu dagoelako. Enpresari robotaren oinarria handizka erosiko diogu, kostuak murrizteko helburuarekin, eta akordio bat lortzen saiatuko gara.

Bestalde, sentsorea osatzeko txipak eta sentsoreak behar ditugu. Osagai hauek Alibaba plataformako hornitzaileen bidez eskuratuko ditugu, baita txipak



soldatzeko makina ere. Horrez gain, txip guztiak bateratzeko eta sentsorea osatzeko karkasa bat beharko dugu. Karkasaren diseinua adimen artifizialaren bidez egingo dugu doan, eta ondoren Madrilan dagoen Plasymat plastikozko injekzio enpresari ekoiztea eskatuko diogu.

Horrez gain, robota sentsorearekin konektatzeko aplikazio bat eta beharrezko softwarea sortu beharko ditugu. Lan hau geuk egingo dugu, informatikaz eta sentsorearen muntaketaz arduratuz.

Azkenik, gure sentsorea saltzeko hainbat bide erabiliko ditugu. Lehenengo, gure online denda propioa sortuko dugu, eta horren ardura guk hartuko dugu. Hasieran, Shopify plataformaren bidez denda sinple bat sortuko dugu. Etorkizunean, beste saltoki batzuekin ere elkarlanean arituko gara gure produktuak saltzeko eta merkatua zabaltzeko; adibidez, MediaMarkt, Fnac, El Corte Inglés, Carrefour edo Ikea.

Produktuak bidaltzeko, hasiera batean DHL enpresarekin elkartuko gara paketeen garraioa kudeatzeko. Aurrerago, gure garraio propioa izatea aztertuko dugu.